

ZERBITZU OROKORRAK / OGASUNA

Aurrekontua

Iruñeko Udalak, 2012an, aurrekontu luzatuak izan zituen. Abenduaren 31n, Alkatetzaren ebazpen bidez, eta teknikariek horri buruz egindako txostenekin bat, 178.733.719 euroko aurrekontu luzatua onetsi zen Iruñearentzat. Era berean, erakunde autonomoen aurrekontuen luzapena ere onetsi zen. Haur Eskolena 7.732.900 euro izan zen, eta Hirigintza Gerentziarena, 5.435.300 euro.

Urtarrilean, Osoko Bilkurak aurrekontu luzatuari hainbat aldaketa egitea onetsi zuen eta, horri esker, besteak beste, Arantzadiko meandroaren eta Trinitarios parkearen hirigintza-garapenak egin ziren (biak ala biak % 80an Europak diruz lagunduta). 15.550.800 euroko kopurua onetsi zen.

Apirilean, Osoko Bilkurak hainbat aldaketa onetsi zituen, gehienak diru-laguntza izendunetara eta gizarte-enplegura bideratzeko. Aldaketek ez zuten aurrekontuaren igoera eragin, mailegu-interesetarako eta langileria-gastuetarako sobran zeuden kredituen murrizketen bidez finantzatu baitziren. Ekainean, osoko bilkurak berriz ere hainbat aldaketa onetsi zituen, inbertisiotarako, 3.912.621,28 eurotan. Urte osoan, osoko bilkurak beste aldaketa batzuk ere onetsi zituen, zenbateko txikiagokoak, gastu zehatzetarako. Guztira, 809.076, 37 euro jo zuten.

Beraz, Iruñeko Udalaren behin betiko aurrekontuak, 2012an, 199.006.216,65 euro jo zuen.

2013rako aurrekontua

Urteko azken egunean, Alkatetzaren Ebazpen bidez, 2013rako aurrekontu luzatua onetsi zen. Bigarren urtez jarraian, Iruñeak aurrekontu luzatuak izan ditu, eta gastu-aurrekontuak 178.733.719 euro jotzen du. Diru-sarrerei buruzko araudiak ezarritakoarekin bat, ez dago aurreikusierik tasa, zerga eta prezio publikoak igotzearen ondoriozko diru-sarrera handiagoen aurreikuspenik, ezta ondare-besterentzerik eta epe luzerako mailegurik ere.

Erakunde autonomoei dagokienez, haur eskolen aurrekontu luzatuak 7.732.900 euro jo du; hau da, 2012an luzatutakoaren zenbateko berbera. Hirigintza Gerentziaren aurrekontua luzatua 3.131.139 euro da.

Grafikoa. Iruñeko Udalaren behin betiko aurrekonturen bilakaera (milioika eurotan)

2008	2009	2010	2011	2012
264,0	257,0	258,8	239,7	199 ^(*)

^(*) Alkatetzaren Ebazpenaz 2011ko abenduaren 31n onetsitako aurrekontuaren (178.733.719 euro) eta urtean Osoko Bilkurak onetsitako aldaketan (20.272.497,65 euro) batura da

Ordenantza fiskalak

2012an, eta hirugarren urtez jarraian, Iruñeko Udalak ez zituen igo herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuen tasak eta prezio publikoak. Ordenantza fiskalak eta prezio publikoen arauak, 2012an, azken urteko legeria-aldaketetara egokitu ziren, hainbat nobedade izan baitziren: besteak beste, egungo legealdiko udal-antolaketa berria, administrazio elektronikoa eta tributubetebeharrak betetzeko epeen luzapena. Tasen eta prezio publikoen bidezko diru-sarrerak Iruñeko Udalaren urteko aurrekontuaren herena dira, gutxi gorabehera.

Nobedade nagusia Udalak ezarritako tarifa berria izan zen, aparkatze mugatuko eremuetan (alde urdinean) gehienez ere bi ordutz aparkatzeko aukera ematen duena 1,05 euroren truke. Denda elkartuek bezeroei ematen ahal dizkieten txanpon batzuen bidez ordaintzen da. Merkataritza-txanpona esaten zaio eta, prezio normalaren alde, % 50eko aurrezpena dakar. Iruñeko Udalak egindako txanponak dira eta, haien bidez, Udalak merkataritza-elkarteekiko lankidetzabideak ezartzen ahalko ditu, bezeroak aparkatzearekin lotutako sustapen-kanpainak bultzatze aldera.

2013rako, Udalaren Osoko Bilkurak erabakia hartu zuen, zergak, tasak eta prezio publikoak % 2,8



eguneratzeko, hiru urtez igoerarik izan gabe. Hartara, abuztuko urte arteko KPla hartu zen erreferentzia gisa, BEZaren igoerak herritarrengan ondoriorik izan ez zezan, irailean igo baitzen. Ez ziren aldatu gizarte-zerbitzuak emateari dagozkion prezio publikoak (larrialdiko apartamentu babestuak, etxebizitza komunitarioak, gizarte-jantokia eta etxez etxeko laguntza zerbitzua), ezta tasa batzuk ere, alde urdainarena kasu. Kalkuluen arabera, 2013rako aurreikusia dagoen eguneratzeak 1,5 milioi euroko igoera eragin dezake diru-bilketan.

Finantza-plana

Iruñeko Udalak, maiatzean, Finantza Programa bat aurkeztu zuen. Programak urteko 25 milioi euro inguruko inbertsioa aurreikusten du 2012tik 2015era, lau urtean guztira 99,8 milioi eurora iristeko. Inbertsioaren zati bat Europako Inbertsio Bankuaren kreditu-ildo batek eta udal-ondarearen zein-lurzorua salmentak finantzatzeko lukete.

Finantza Programak inbertsio-aurreikuspenak ere ekarri zituen, besteak beste ondokoak egiteko: San Zernin burguaren berrurbanizazioa (11 milioi euro), Arantzaadiko meandroaren parkea (8,3 milioi), Donapeko UPSa (4 milioi), Arrosadiko lakua (3 milioi), Txantreako hegoaldeko parkea (3,2 milioi), Trinitarios aldeko parkea (2,8 milioi), Labriten bastioia eta Magdalenako harresi-atala zaharberritzea (ia bi milioi euro) eta Txantreako espaloia berritzea (2,7 milioi). Inbertsio horiekin batera, Udalak aurreikusi du 15,8 milioi euro zaharberritze arloko diru-laguntzetara eta programetara bideratzea; 6,8 euro, 2012 - 2015 aldiko Etxebizitza Planera; 6,2 milioi euro, mantentze-inbertsioetara eta bestelako kapital-transferentzietara; 2,7 milioi, kaleak asfaltatzera eta bi milioi euro semaforo-instalazio eta argiztapen publikora.

- *Lurzorua enkantean atzeratzea.* Udalak bere jabetzapeko lurzorua enkantea arautzeko pleguak onetsi zituen, bertan 300 etxebizitza eraikitzeke. Guztira, 9.000 m² dira, bederatzi lurzati sortatan banatuak hiriko sei auzotan (Sanduzelai, Arrotxapea,

Beloso Goiti, Iturrama Berria, Arrosadia - Lezkairu); II. Zabalguneke Sorospen Etxea esaten zaiona ere hartzen du. Enkantean ez zen enpresa bakar bat ere aurkeztu; sortak, beraz, ez ziren banatu.

- *Europako Inbertsio Bankuaren mailegua.* Iruñeko Udalak eta Europako Inbertsio Bankuak 16 milioi euroko mailegua sinatu zuten azaroan, hiriko hiri-azpiegituretan inbertsioak egiteko. Guztira baimendu diren 50 milioi euroren lehen tarteak izan da. Europako Inbertsio Bankuak Iruña 2012-2015eko inbertsio-programaren barruko jarduketak finantzatzea aurreikusi du. Programaren helburua hiriko azpiegiturek modernizatzea da, betiere eraikinetan nahiz garraiobideetan energia-eraginkortasuna eta irisgarritasuna sustatuta.

Aurreikusitako inbertsioak hiri osoan egiten dira eta ondoko proiektuak biltzen dituzte: hiri-garapena eta berdeguneak; hiri-kontserbazioa eta -berrikuntza, sareak hobetzea eta lurpeko galeriak handitzea barne, hiriko zerbitzuak txertatzeko, eta argiztapena berritzea; inbertsioak eraikin publikoetan eta kultur ondarean, zerbitzu publikoei (gizartea, kultura, administrazioa eta kirola) eskaintako eraikinak berritu eta egokitzea barne; Iruñeko kultur ondarea zaindu eta hobetzearen baitan, bestalde, inbertsiorik esanguratsuenak harresi-barrutia zaharberritu eta modernizatzeke lanak bilduko lituzke; eta mugikortasun iraunkorreko proiektuak, hala nola oinezkoendako kaleak eraikitzea eta igogailuak paratzea, altuera desberdineko auzoak lotzeko.

Udalaren eraikinak eta lokalak Inbentarioaren balioa, guztira

2007. urtea	517.322.018
2008. urtea	630.973.858
2009. urtea	681.326.475
2010. urtea	746.849.296
2011. urtea	778.212.796,95
2012. urtea	786.054.852,13

(*) (inbentarioa kudeatzeko aplikazioan sartutako aktibo erreala eta uneko aktiboa barne)





Inbertsioen programa lagungarria da Alkateen Ituna deritzonaren helburuak ezartzeko. Europako Batzordeak sustaturiko ituna da, eta Iruña kide da. Itun hori sinatu duten udalek berotegi-efektuko gas-isurpenak murrizteko konpromisoa hartu dute, Batasunak 2020rako ezarri duen % 20ko helburuaren gainetik.

Europako Inbertsio Bankua Europar Batasuneko epe luzerako finantza-erakundea da, eta bankuaren akziodunak estatu kideak dira. Europako Inbertsio Bankuak inbertsio-proiektu bideragarriari ematen die epe luzerako finantzaketa, EBren politikaren helburuak lortzen laguntzeko.

Udal-eraikin eta -lokal guztien balioa

	2008	2009	2010	2011	2012
Bulego Eraikinak	11.325.612,31	11.403.875,99	13.238.444,53	13.253.448,23	13.280.810,10
Merkataritza Eraikinak	6.769.871,57	6.769.871,57	6.772.371,57	6.772.371,57	6.772.371,57
Kultur edota Gizarte Eraikinak	40.951.056,49	41.352.432,45	46.685.494,63	49.638.890,22	50.724.447,67
Irakaskuntza Eraikinak	61.198.691,96	70.642.976,04	84.520.920,77	88.679.075,66	89.085.106,74
Kirol Instalazioak	30.159.941,87	34.437.535,30	44.128.414,97	42.093.580,32	42.093.580,32
Osasun Eraikinak	9.954.889,65	10.554.559,99	10.355.125,10	11.051.764,87	10.946.587,75
Beste hainbat zerbitzu	11.471.387,51	17.464.764,91	19.494.664,94	19.495.779,30	19.195.273,25
Zerbitzu Galeria	17.395.423,53	16.710.259,99	14.181.049,06	14.444.893,04	14.602.340,36
Etxebizitzak	31.852.987,44	32.232.171,62	30.746.777,52	30.743.413,90	30.899.709,68
Aretoak	14.319.507,61	14.565.907,46	16.171.311,73	17.868.544,95	18.755.302,63
Trastelekuak	383.507,35	383.507,35	383.507,35	383.507,35	383.507,35
Garajeak	2.207.868,77	2.207.868,77	2.207.868,77	2.207.868,77	2.207.868,77
Kioskoak	4.507,60	4.507,60	4.507,60	1.803,04	1.803,04
Beste hainbat eraikuntza	2.741.303,24	2.741.303,24	3.782.281,17	6.306.610,26	6.312.383,05

ERAIKUNTZAK,

GUZTIRA	240.736.556,90	261.471.542,28	292.672.739,71	302.941.551,48	305.261.092,28
---------	----------------	----------------	----------------	----------------	----------------

Europak finantzatutako proiektuak

Ekimena/Programa Funtsa*	Proiektua	Gauzapen-aldia	Aurrekontua Iruñeko Udala (€)**	Europako Finantzaketa (€)
SAVE programa	Energia Agentziaren sorrera	1997-2000	408.000	171.360
Kohesio Funtsa	Arga ibaiari buruzko Plana	1996-1999	6.390.000	5.112.000
Europar Gizarte Funtsa	YouthStar CuatroVientos proiektua	1996-1999	830.000	415.000
URBAN-FEDER ekimena	URBAN II Iruña Programa: Alde Zaharra - Arrotxa	2001-2008	23.185.000	11.592.500
Nafarroako PAB	Monjardin bidea	2000-2006	7.000.000	3.500.000
Nafarroako PAB	Isaac Albéniz kaleko irisgarritasuna	2006-2008	836.000	418.000
Kohesio Funtsa	Iruñeko ibaiei buruzko Plana	2000-2006	10.800.000	8.640.000
URBACT-FEDER programa	Herritarrek udaletan parte hartzeko sarea	2005-2007	96.000	48.000
Europar Gizarte Funtsa	Emakume etorkinak prestatzeko proiektuak eta enplegua hiri-merkataritzan sustatzeko ituna	2007-2010	855.000	427.500
URBANA-FEDER ekimena	Milagrosa Auzoa Hiri Biziberritzea	2007-2013	3.014.000	1.507.000
Kohesio Funtsa	Iruñeko ibaietako ingurumen-jarduketak	2007-2013	9.610.000	7.688.000
Energia Adimentsua Engage Proiektua Programa	Hiriaren konpromisoak klima-aldaketari aurre egiteko	2010-2012	99.694	74.770
Espainia-Frantzia- Andorra mugaz gaindiko ankidetza- programa	Fortius Proiektua- Iruñeko eta Baionako gotorleku-ondarearen kultur eta turismo balorizazioa	2012-2014	3.915.067	2.544.793
GUZTIRA			67.038.761	42.138.923

* Taula honetan ez dira zenbatu Gizarte Ongizate eta Kirol Alorrak enpleguaren arloan kudeatzen dituen beste hainbat programa (lantegi-eskolak, prestakuntza-ikastaroak...), zeinek Europatik jasotzen baitute finantzamendua, Nafarroako Gobernuaren Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez.

** Gutxi gorabeherako kopuruak. Grisean margotutako proiektuak bukatu dira eta bere osoan likidatu dira. Gainerakoak betetzen ari dira edota, behin bukatuta, azken saldoa noiz jasoko zain.





Hilerria

San Jose Hilerria XIX. mendearen lehen erdian eraiki zen eta 1928an Udalak bere gain hartu zuen. 1879tik aurrera, ehorzketak erregistratu dira. Kanposantuak, guztira, 127.930 metro koadro ditu, eta, gutxi gorabehera 15.000 nitxo, 3.000 kolunbario, 4.500 lur-hilobi eta 4.000 panteoi ditu. Iruñeko hilerriaren udal-zerbitzuaren egitekoa gorpuk ehorztea eta erraustea da (eta gorpuk desehorztea, berrehorztea eta gorpuzkinak erraustea), betiere behar bezalako baldintzetan higieneari eta osasunari dagokienez, errespetuz eta garbitasunez.

2012an, 2.227 ehorzketa egin ziren; aurreko urtean baino % 0,45 gutxiago. Desehorzketek, berriz, % 26,53 egin zuten behera, 2011ren aldean. Hilerriko lantaldea 20 lagunek osatua dago. 2001ean hasi zen jardunean erraustelabea eta, horrenbestez, orduan hasi ziren errausketak egiten. Iaz, 10 urte bete ziren labea ezarri zenetik,

eta hain zuzen ere 2011n behera egin zuten, horregatik, luzapena eskatu behar zuten ehorzketek.

Gorpu-eramateen kopurua egonkortu da, 2011ren aldean. Oro har, errausketa kopuruak eta ehunekoak gora segitzen dute, gainerako eramateen kontura.

Urtea bukatzean, hilerrian 1.272 nitxo libre zeuden; 20 lur-hilobi erabilgarri eta 147 kolunbario libre. 2012. urtean, Udalaren hilerriko hamabi lurzati eta hamar panteoi hirukoitz atera ziren enkantean. Administrazio-lanaren barnean, gainera, urtean ehun bat informazio-eskariri ematen zaie erantzuna fetuen eta umeen ehorzketari buruz. Era berean, hilerriko horma bat konpondu zen, Udalaren hargintzako lantegi-eskolak lagundurik.

Ehorzketak

	2008	2009	2010	2011	2012
Nitxoak	632	622	534	560	510
Lurra	37	30	29	17	20
Panteoia	221	245	218	220	197
Gorpu- errausketak	1.263	1.347	1.336	1.440	1.500
GUZTIRA	2.153	2.244	2.117	2.237	2.227

Desehorzketak

	2008	2009	2010	2011	2012
Beste					
hilerri bat	237	245	217	241	245
Hezurtegi					
bateratua	998	1.006	701	1.133	686
Berrehorzketak	172	186	166	149	134
Gorpuzkien errausketak	332	289	264	226	220
GUZTIRA	1.739	1.726	1.348	1.749	1.285